

Entzule Klubak
(LANARTEAren proposamena UEMArri)
2021eko azaroaren 19an



Testuingurua:

Joan den mendean, euskarazko musika motore eta eredu izan zen euskaldunen kontzientzia pizteko eta egonkortzeko prozesuan. Jendeak musika entzuten segitzen du gure artean, baina gehien entzuten duen musika gaztelaniaz (Hego Euskal Herrian), frantsesez (Ipar Euskal Herrian) eta ingelesez mintzo da.

Euskaraz ari diren musikariek eta sektoreko eragileek urteak daramatzate salatzen ez daukatela zirkuitu propiorik (diskoa atera bai, baina disko hori zuzenekoetan defendatzeko aukera ez daukate ziurtatuta, inolaz ere). Bada denbora, baita ere, euskal kulturaren transmisioan eten bortitza gertatu dela esaten ari garena: UEMAk berak badu eten horren konstantziarik; musikariek ere bai. Transmisioan gako diren hedabideetan, baita publikoetan ere, euskarazko musika urtetik urtera ari da galtzen tokia, erderazkoen mesederako. Testuinguru horretan, ez da harritzekoa euskarazko musikak eta musikariek erreferentzialtasuna galtzea gure artean, horrek musikarien ezagutzan eta beren lanen hedapenean dakarren guztiarekin.

Zalantzarik gabe esan dezakegu, hala eta guztiz ere, musika dela gazteak euskarara lotzeko lehen kultur katebegia. Horri heldu behar diogu, beraz, egoera linguistikoa eta kulturala irauliko bada, eta hortik dator Entzule Klubak sortzeko proposamena: euskararen eta euskarazko kulturaren biziberritzean UEMAk daukan konpromisoa gogoan, euskararen arnaguneak euskarazko kulturaren hauspo indartsu bilakatzea helburu.

Erabilitako ereduak:

Musikarien beharrari erantzuteko asmoz, entzule klubak sortzea bururatu zitzaigun. Irakurle klubaren erreferentzia genuen buruan, eta beren bilakaera aztertu. Hasieratik, dinamizatzailerak dute irakurle taldeak. Hastapenetan, hizpide zuten liburuaren egilea gonbidatzea izan zen joera nagusia, baina gaur egun ohikoago dira egilerik gabeko saioak. Horietan, dinamizatzailerari saioa ordaintzen zaio. Eta dinamizatzailerak ere, gero eta gehiago, idazle dira.

Liburu bati buruz hitz egitea eta disko bati buruz hitz egitea ez dira gauza bera, baina. Gazteak errazago hurbiltzen dira musika ekitaldi batera literatur ekitaldi batera baino. Halaxe erakutsi digute Musikariak Ikastetxeetan (DBHko 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko ikasleei zuzenduta dago eta Eusko Jaurlaritzaren zein Nafarroako Gobernuaren hezkuntza sailen laguntza jasotzen du) eta Oiartzungo KantaGiltza ekimenek. Musikariak Ikastetxeetan ekimenaren harira ikasleek egindako balorazioetan, hain zuzen ere, asko eskertu duta ikasleek musikaria bera zuzenean entzuteko aukera. Horregatik egiten dugu musikaria bera ere gonbidatzearen alde. Musikari hori bakarlarria izan beharrik ez dago. Musikariak Ikastetxeetan ekimenean parte hartzen dutenen %90, esaterako, talde bateko kide dira (kantuen konposatzaileak dira denak).

Proposamen hau euskarazko musikaren zirkuitua mamituko duten zaleen harrobi eta euskarazko musikarako sarbide gisa planteatzen dugu. Musikariak Ikastetxeetan programatik pasatu diren gazteei musika bazka ematen jarraitzeko bide izan daiteke, eta lehendik ere musikazale direnei gazteekin topo egin eta ideiak kontrastatzeko tresna. Transmisioa, zaletasun sustapena eta hedapena ditu helburu, beraz, aldi berean.

Definizio doi bat:

Entzule klubak/taldeak azken urtebetean (2 urtean) argitaratutako diskoak ezagutarazteko eta musikazaletasuna sustatzeko tresna bat dira, diskoen sortze prozesua eta mamia azalduz.

Entzule klubak(taldeak) hitzaldi-solasaldiak dira; ez dira kontzertuak, musika entzuteko parada emango duten arren. Inportantea da hau argi uztea proposamen honetan parte hartuko duten guztiei, izan musikari, izan kultur programatzaile, teknikari zein

zinegotzi. Entzuleentzako solasaldi batek ez du musikaria kontzertua eskaintzeko aukerarik gabe utzi behar.

Musikarien lana da musika sortzea eta musika hori oholtzan defendatzea. Horretarako, lehenik eta behin, beren lanen berri zabaldu behar dute. Entzule klubak horretarako tresna izan behar du, ez kontzertu baten ordezkari. (Are: dena ondo bidean, UEMA euskarazko kulturaren ardatz bilakatuko lukeen musika kontzertu zirkuitu baten ernamuina izan daitezke entzule klubak. Horretarako formula bat izan daiteke, esaterako, urtean zehar entzule klubera etorri diren musikariek kontzertua eskaintzea herriko festetan, urteko uzta moduko bat taularatuz).

Solasaldien ezaugarriak:

Protagonistak: dinamizatzailea + musikaria (bere diskoa salgai jartzeko aukera emango genioke musikari gonbidatuari).

Musikaria izango da ekitaldion amua, zalantzarik gabe. Gonbidatutako musikarien soslaia beti bera ez izatea (generoa, musika estiloa, arrakasta maila... oreka mantendu behar da) eta gertuko-Euskal Herriko beste puntako musikariak ezagutaraztea, dinamizatzailearen ardura izango da. Gu arduratuko ginateke dinamizatzaile taldea lotzeaz. Dinamizatzailea arduratuko litzateke saioak lotzeaz.

Iraupena: 60-90 minutu.

Aldirokotasuna: urtean 6 saio (bi hilabete behin bat), herri handi-ertainen kasuan; 3-4 saio txikietan (urte sasoi bakoitzeko bat?).

Tokia: herri bakoitzaren arabera, udal liburutegi, areto, gaztetxe... aukerak asko dira. Aretoaren handia baino, egokitasuna eta goxotasuna hartuko dira kontuan.

Aurrekontua: 450 euro garbi (150 dinamizatzaileak + 300 musikariak). Kopuru horretan sartuko lirateke bidaia gastuak. Ez da kopuru zurruna. Udalerri guztiek ez dute aurrekontu bera, badakigu, eta hori ere kontuan hartzekoa da.

Finantziarioa: Eusko Jaurlaritzak/Nafarroako Gobernuak/Foru Aldundiek lagundu behar lukete sare hau (oso-osorik ez bada, parte handi bat bai gutxienez), kultura eta euskara herritar guztiengana hurreratzeko helburua jarrita. Horrekin, bai udalerririk bai artistak asetuta geratuko lirateke.

Entzule Klubak. UEMArri proposamanea

Nola antolatu: Formula ezberdinak egon daitezke. Froga pilotu gisa planteia daiteke, 10-15 udalerrri geuk zehaztuta eta lotuta. Beste aukera bat da UEMArri herri guztiei proiektuan izen emateko aukera ematea. Dijitalidadeakoei, esaterako, badute esperientzia horretan, eta esperientzia hori balia daiteke.

Edozein dela ere formula, kultur teknikarien zerrenda bat behar genuke, gure dinamizatzaile zerrendarekin uztartzeko.